

'Parkean euskaraz' egitasmoa

Iruñerriko gurasoek haurren eredu izan nahi dute

Iruñerrian 'Parkean euskaraz' egitasmoa abian da. Heldu eta haur euskaldunak astero biltzen dira auzoan edo herrian elkarrekin euskaraz hitz egiteko. Helburua haurrek haien artean euskaraz egitea da eta horretarako guraso, senide edo lagun helduak eredu izatea da oinarria.



ONINTZA IRURETA AZKUNE

Bestelako egitasmoak ugariagoak dira, alegia, haurrak aisialdian biltzen dira eta antolatutako programen bidez haien erabilera bultzatzeko ekimenak egiten dituzte. Iruñerrian abian jarri dutena beste modu batekoa da, Donostiako *Parketarrak* egitasmoari eta Lasarte-Oriako antzeko programa bati begira aritu dira. Haurrak ez dabilta bere kabuz, haiek adina garrantzi dute helduek. Euskaldunak edo ia euskaldunak dira derrigor helduok, izan guraso, senide edo konfiantzako lagun bat, eta haien artean euskaraz egiten dute, umeen eredu izan nahian. Horixe da *Parkean euskaraz* ekimenaren bereizgarria, helduek umei euskaraz egiteaz gain, haurrek helduak entzuten dituzte elkarren artean euskaraz.

Beste helburu batzuk ere badituzte ekimenaren bultzatzaileek. Nahi dute haurrek euskara lotzea hezkuntza araututik kanpoko guneekin, aisialdiarekin lotzea, gozamenarekin. Beste helburu bat auzoan edo herrian bizilagun euskaldunen artean taldeak sortzea da. Eta badute azken xede bat ere: gurasoak ahalduntzea. Iñigo Otxoa ekimeneko kidea da eta berari galdetu diogu zer esan nahi duen ahalduntzeak: "Euskaraz bizitzearen aldeko ekimena dela uste dugu. Nahiko genuke taldea sortu ahala, konfiantza hartu ahala, beste gai batzuetan ere eragitea, merkataritza dela, auzoko kultur agenda dela, Korrika datorrela...".

Helduek euskaldun izan behar dute. Euskaraz hizketarako gaitasunik ez daukan batek baino gehiagok galdetu die haientzako egitasmoa den: "Euskararen gutxieneko jakintza behar da. Galdetzen diegu ea inguruan baduten heldu euskaldunen bat haurrarekin joateko, eta hala ez bada eta parte hartzeko grina adierazten jarraitzen badute, mahai gainean jarri izan dugu 'parkean euskaraz hasi' moduko bat egitea, familia erdaldunek enpatizatu dezaten eta lehen hitzak euskaraz ikasten has daitezten". Oraingoz guraso erdaldunek ez dute halako ekimenik abian jarri.

PANKARTATIK PARKERA

Ekimenaren abiapuntuan Haur Eskoletako Gurasoak taldea dago. Haien ibilbidean aldarrikapen nagusia izan da Iruñerrian haur eskola publikoen euskarazko eskaintza handitzea. Otxoak beraien jardunari begiratu eman dio eta gogoeta egin du: "Guk esaten dugu azken bi urteak nahiko pankarteroak izan direla, bilera politikoak egin ditugu, mobilizazioak, haur eskolak euskaraz izan daitezten eskatu dugu... Hausnartu dugu ea denak izan behar duen pankarteroa ala guk sor genezakeen zerbait eraikitzailea". Eskolaz gairako dimentsioari ere garrantzia ematea erabaki zuten, hezkuntza arautuaz gain, hizkuntzaren transmisioan aisialdiak eta etxeko giroak ere berebiziko garrantzia dutela sinetsi-

ta. Bide berriak urratzea erabaki zuten eta maiatza-ekainean proba pilotua egin zuten. Emaitzek animatuta ikasturte osorako plana diseinatu zuten.

HAMAR SAIO OTSAILERA BITARTE

Oraingoz otsailera arteko plana egin dute. 2-3 urteko haurrak bilduko dira batetik eta 4-6 urte artekoak bestetik. Astean behin elkartuko dira. Antsoain herrian eta Iruñeko Txantrea, Arrotxapea eta Alde Zaharra auzoetan osatu dituzte taldeak. Egitasmoaren laguntzaile da Sortzen Elkarte eta kudeaketa Dindaia Fundazioak egingo du, hala nola, izen-emateak, kuotak jasotzea, dinamizatzaileak eskura jartzea eta materiala. Hamar saio egingo dituzte, bost gurasoek antolatutakoak eta beste bost Dindaia Fundazioaren bitartez dinamizatzaileek gidatutakoak. Udaberrian egindako proba pilotuan konturatu ziren, azken finean, ekimenean izena ematen dutenak gurasoak direla eta haiek ere parte hartzen dutenez, ekintzetan nolabaiteko amuak jarri behar zaizkiela. Beraz, otsailera bitarteko saioetan gurasoentzat ere gustagarri diren ekintzak diseinatzen ahalegin berezia egingo dute. Arrakasta dute adibidez txangoek, tailerrek edo esku-lanek. Otsailetik ikasturte bukaera arteko eskaintzeko kanpaina berria egingo dute eta ikuspegi horri helduko diote, alegia, gurasoek antolatutako jarduerak indartzen saiatuko dira. ●